

# ESKOLAKO PATIO BATETIK MUNDUKO TXAPELKETETARA

Saskibaloia ez zen Espainian sortu, baina bidaia berezi bat egin zuen hona iristeko. Lehenengo Kubara iritsi zen, hara soldadu estatubatuarak eraman zuten eta bertan Eusebio Millán izeneko apaiz Espainiar batek kirol hau ezagutu zuen. Asko gustatu zitzaion eta 1921ean Espainiara bueltatu zenean, saskibaloia irakasteko asmoz etorri zen.



Eusebio Bartzelonara iritsi zen San Antongo Escuelas Pías ikastetxean saskibaloia irakasteko gogoarekin, baina ez zen erraza izan. Garai horretan Espainian futbola zen gehien jokatzen zen kirola, eta saskibaloia ez zen ezta ezagutzen ere. Saskiak jarri zituen patioan, eta ikasle batzuk jolastera behartu zituen, saskibaloian parte hartzen ez bazuten, ezin izango zutela futbolearen gehiago jokatuko, esanez.

Horrela sortu zen klaseen arteko lehen txapelketa. Eta 1922an Espainiako lehen saskibaloi kluba sortu zen, Laietà Basket Club. Gaur egun Espainiako klubik zaharrena da.



Neskak ere jokoan sartu ziren. 1928an emakumezkoen lehen saskibaloi taldea sortu zen, Club Femení d'Esports. Garai hartan oso erabaki ausarta izan zen emakumeentzat, gutxietsiak zeuden eta.

Urteak joan urteak etorri, saskibaloia gero eta ezagunagoa egin zen, baina Espainian hasieran oso modu berezian jokatzen zen, zazpi jokalarirekin, futbol zelaietan eta asmatutako arauekin. Baina 1927an Espainiako talde batek Argentinako talde baten aurka lagunarteko partida bat jokatu zuen. Espainiako taldeak 16-50 galdu zuen, baina partida honi esker asko ikasi zuten. Hauezkero bost jokalarirekin jokatzen hasi ziren, benetako saskibaloizelaia egin ziren, eta arauak ondo ikasi zituzten.

Eskolapatio batean hasi zen, baina urte asko geroago, 2006an, Espainiako selekzioak Munduko Txapelketa irabazi zuen Japonian, eta egun hartan, herrialde osoak ospatu zuen.

Gaur egun saskibaloia oso kirol garrantzitsua da Espainian. Liga profesional bat baino gehiago dauzkagu, Real Madrid eta Barça bezalako taldeak tartean, eta gutxi balitz Espainiako jokalaria asko NBA eta WNBA daude.

Gaur egun jende askok saskibaloia ezagutzen duen arren, Espainiako biztanleetatik bakarrik % 9,7k jokatzen du talde federatu batean.

